

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Bidea

Irlanda eta Eskozia, biak batera, adibide onak dira gure bideak nondik joan beharko lukeen hobeto ulertzeko. Zergatik? Urteetan Irlandako eredia hobetsi du, ez bairik gabe, herri honetako independentismoak. Elkarrizketatua eta adostua, nazioa eta erabakitze eskubidearen aitortza dira independentzia erreferenduma antolatze oinarri juridikoa eta horren emaitza legitimatzeko bidea. Eskoziak erakutsi zigun erabakitze eskubidea aitortua izan gabe independentzia erreferendum adostu bat antolatze modua dagoela. Argi dago Irlandako eta Eskoziako bideetan, munduko gainerako prozesuetan bezala, norberaren indarra dela aurrera egiteko elementu nagusia.

Irlandan Ostiral Santuko akordioa bultzatu eta erdieste indar nahikoa izan zuen mugimendu errepublikanoak. Baina horrek ez zuen ziurtatzen orduan adosturikoa gauzatzeko indar nahikoa izango zuenik gerora. Orduan bataila edo prozesu berria hasi zen eta badirudi, 25 urte geroago, Irlandaren batasuna erdieste 1998an adosturiko bidea gauzatzeko posizioan egon daitekeela aurki Sinn Fein.

Eskoziari, bestalde, SNP alderdi independentistak indar instituzional nahikoa lortu zuen Holyrood eta Westminsterren independentzia erreferendum bat adostu eta bultzatzeko. Ezin izan zuen erreferenduma irabazi. Orain, eta neurri batean Brexitak bultzaturik, beste erreferendum bat gauzatzeko momentua eraikitzen ari da. Berriz ere indar kontua. Norberaren indarrak eta arerioarenak erabakitzen dute, momentu historiko jakin bakoitzean, lortu daitekeen hori.

Gu ez gara Eskozia, ezta Irlanda ere. Eta Katalunian ikasi genuen Erresuma Batuak eta Estatu espainolak ez dutela oinarri eta jarrera demokratiko berbera. Madril gertuago dagoela Ankaratik Londresetik baino.

Horregatik diot gureak biak batera jorratu beharko dituela. Batetik, bide elkarrizketatua eta adostua lantzen jarraitu beharra dago, etengabe eta pazientzia do-

si izugarria erakutsiz: erabakitze eskubidearen aitortza bilatu, bide legal guztiak muturreraino eramane, autonomiak eskaini dezakeen zirrikitu oro bukaeraino jorratu. Eskubide horren ukazioa erabili behar da gure herrian eta nazioartean estatuaren deslegitimazio etengabea sustatzeko eta gure aldarrikapenen legitimazioa indartzeko. Baita gure helburuen aldeko babesa indartzeko ere. Elkarrizketa eta negoziatorako presuntasuna beti. Geuk nahi dugu akordioa lortu; ez diezaiozun hori arerioari oparitu. Eta horrekin batera, eta modu paraleloan, bide propioa jorratu, estatu esturkturak eraiki eta aurrera egin, erabakitze eskubidearen aitortzea ez dadin bilakatu prozesua betiko lo karrarazteko tresna. Bestela, jai dugu. Estatuak ez baitu sekula erabakitze eskubidea aitortuko, ez badu estatuaren etorkizuna kinka larrian ikusten. Eta nazio askapen mugimenduak ez baitu estrategia irabazle bat gauzatzeko lortuko, ez badu bere proiektua lortu dezakeen biderik egiten.

Gu ez gara Eskozia, ezta Irlanda ere. Eta Katalunian ikasi genuen Erresuma Batuak eta Estatu espainolak ez dutela oinarri eta jarrera demokratiko bera; Madril gertuago dago Ankaratik Londresetik baino

Indar handiagoa lortu beharra dago. Indar nahikoa zenbat den ez dago batere argi. Irlandan eta Eskoziari ez dago independentismoan hegemonia inguruko hauteskunde lehiarik. Irlandan Sinn Fein eta Eskoziari SNP dira alderdi independentista nagusiak ez bairik gabe. Ez da Euskal Herriko errealitatea. 2017ko Katalunian erakutsi zigun alderdi independentistek, hauteskunde lehia izanik ere, independentziarako bidea elkarrekin egin zezaketela. Gaur egungo Katalunian erakusten digu alderdi independentisten arteko hauteskunde lehia arazo larri bilaka daitekeela. Gurean alderdi abertzaleen arteko lehia eta elkarlana batera egiteko kultura eta praktika politiko berriak asmatu beharko ditugu. •